



# ERAZTUN *berde urdina*

3 | Albisteak

4 | Elkarrizketa

7 | Eskolako Agenda 21

13 | EBUren altxorrak

14 | Zarauztarrak EBUan



*ageriko  
eta ezkutuko  
altxorrak*



*“Gutako bakoitza  
berotze globalaren kausa  
gara, baina era berean,  
konponbidearen zati izan  
gaitzke”*

*“Cada persona es una causa  
del calentamiento global, pero,  
a la vez, puede convertirse en  
parte de la solución”*

**AL GORE,**

Bakearen Nobel Saria  
Premio Nobel de la Paz



ZARAUZKO UDALA  
agenda21



udalsarea21  
jasangarritasunerako udalerrien euskal sareak  
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingurumeneko eta Oso  
Herriakuntzako Departamentua



EDITORIALA

# Eraztun Berde Urdina

Eskuartearen duzuna Eraztun Berde Urdina (EBU) aldizkariaren lehenengo zenbakia da, [www.eraztunberdeurdina.eus](http://www.eraztunberdeurdina.eus) webgunearen osagarri izango dena. Zarauzko Udaleko Agenda 21 departamentuak sustatu duen izen bereko egitasmoaren oihartzuna zabaltzea du xede, eta bide batez, noski, naturarekiko sentsibilizazioa zabaltzea eta aldaketa klimatikoa eteten laguntzea.

EBU udalerria inguratzen duen 11,7 kilometroko ibilbide batek osatzen du eta hainbat interes gune lotzen ditu, eta besteak beste, biodibertsitatearen eta ondare naturalaren zaintza ditu oinarri nagusi.

Baina ingurumenaz haratago, asmo handiko eta proiektio izugarria duen zeharkako egitasmo baten aurrean gaude. Horretarako, udaleko bestelako departamentuen –Kirola, Kultura, Turismoa...– eskuhartzea eta udalerriko zenbait eragileren inplikazioa ezinbestekoa izango da, udalerrientzat estrategikoa izango den proiektu baten aurrean gaudelako.

EBU espazio bizia da, herritarren ekarpenekin moldatzen, berritzen edota aldatzen joango dena eta zarauztarroi zein bisitariari aisialdian aire librean gozatzeko aukera emango diguna.

Zer hobe helburu hori herritarrekin eta herriko eragileekin elkarlanean lortzen badugu.



Te presentamos el lanzamiento de la revista EBU, que viene a complementar la página web [www.eraztunberdeurdina.eus](http://www.eraztunberdeurdina.eus). Su objetivo no es otro que divulgar el Anillo Verde Azul (EBU), un proyecto liderado por el departamento de Agenda 21 Local del Ayuntamiento de Zarautz y que pretende incidir en la sensibilización medioambiental y frenar los efectos del cambio climático.

El EBU es un recorrido de 11,7 kilómetros que rodea el municipio uniendo varios puntos de interés y que tiene como ejes principales conservar la biodiversidad y los espacios naturales.

Pero más allá de objetivos ambientales, estamos ante un proyecto de gran ambición y proyección. Una iniciativa transversal que pretende implicar a otros departamentos municipales –Deporte, Cultura, Turismo...– y a los diferentes agentes sociales de Zarautz. Su participación se antoja imprescindible en esta iniciativa tan estratégica para el municipio.

El EBU no es un proyecto estanco, al contrario. Está lleno de vida y pretende crecer en base a las aportaciones de la ciudadanía y ofrecer tanto a la ciudadanía como a las personas visitantes un espacio para disfrutar del ocio en el tiempo libre.

Y para ello, nada mejor que trabajar en equipo junto con la ciudadanía y los agentes sociales.

# albisteak



## ZAHARBERRITZE LANAK VISTA ALEGRE PARKEAN

Zarauzko Udalak zaharberritze lanak egingo ditu. Hain zuzen, egoera kaskarrean dauden espazioak berrituko dira: zorua, bidexkak, parkearen sarrera eta atseden-lekuak.

Zorua, esate baterako, orekatu egingo da maila berean jarritz; eta goroldioz beteta dauden zona hezi eta bustiak bisitariak irrist ez egiteko moduan egokituko dira. Parkearen sarreran, berriz, egurrezko elementuak, lora-tegi txiki bat eta parkearen zein ibilbidearen informazioa ematen duten panelak jarriko dira. Horretaz gain, mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako egokituko da.

*Las obras de Vista Alegre tienen como objeto reformar los caminos y espacios en mal estado para facilitar la accesibilidad de todas las personas. Cuentan con la ayuda de Medio Ambiente de la DFG*



## RECUPERACIÓN DEL HUMEDAL DE IRITA

La Agencia Vasca del Agua va a realizar una importante actuación en el río Iñurritza a su paso por el humedal de Irita, donde demolerá el muro de la margen derecha con el objeto de iniciar el proceso de recuperación del humedal.

Desde el Departamento de Agenda 21 Local y Medio Ambiente del Ayuntamiento de Zarautz han incidido en la importancia de la actuación, “porque los ríos son ecosistemas ricos en biodiversidad que debemos cuidar y mantener en su estado natural”.

*Uraren Euskal Agentziak lanak egingo ditu Iñurritza ibaian, Iritako hezegunean. Bertan, eskuineko aldean dagoen harresia erautsi egingo da. Lan hauekin Irita berreskuratze-ko prozesuari hasiera emango zaio*



## ZINGIRA BASOAN ARKAMURKA GEHIAGO

Zarauzko Udalak baso lanak egin ditu urrian zehar Zingira basoan. Lan hauekin bi helburu bete nahi dira: batetik, arkamurkaren presentzia areagotzea; eta bestetik, garai bateko arkamurka basoa eta goiko partean zegoen Zingira bera berreskuratzea.

Horretarako, egun dauden pinuak bota egingo direla iragarri dute. Arkamurkak berreskuratze lanek irauten duten bitartean Zingira basoa eta bertara iristeko bideak moztuta egongo dira. Era berean, Udalak arkamurka gehiago landatuko direla iragarri du.

*El Ayuntamiento de Zarautz quiere recuperar los alcornocales y la charca del bosque Zingira. Para ello, han comenzado a talar los pinos de la zona. Durante las obras el acceso al bosque permanecerá cerrado*

ELKARRIZKETA

ELKARRIZKETA

## *Gloria Vázquez*

Zarauzko Udaleko Agenda 21eko eta Ingurumeneko zinegotzia

Zarauzko Eratzun Berde Urdina (EBU) egitasmoa estrategikoa da Gloria Vázquez Zarauzko Udaleko zinegotziarentzat. Estrategikoa da, ingurumenari lotutako elementuak babesteko jaiotzen delako eta herriaren garapen iraunkorra babesteko oinarri sendoak finkatzen dituelako.

# “EBU-AK HERRIAREN HAZKUNDEAREN ETA GARAPEN IRAUNKORRAREN ARTEKO ZUBI LANA EGINGO DU”

**Zein helbururekin sortzen da Zarauzko Eratzun Berde Urdina?**

Helburu nagusia Zarauzko biodibertsitatea eta natura zaintzea da. Batetik, udalerriko espazio naturalak babestu eta zainduko ditugu; eta bestetik, ingurumen heziketa eta sentsibilizazio lana egingo dugu. Badira, era berean, zeharkako beste hainbat helburu: kirola egitea, naturaz gozatzea aisialdian edota turismo ekologikoa bultzatzea.

**Nola sortzen da Eratzun Berde Urdinarena? Badaude antzeko esperientziak?**

Tejeriako haltzadian nenbilela otu zitzaidan. Baso edarra da, eta herritik oso hurbil daukagu. Babestu beharreko gunea da, berreskuratze lanak behar dituena. Ideia horrekin ari nintzela, Zarautzen Gasteizko Eratzun Berdea bezalako bat egin genezakeela pentsatu nuen. Gasteizkoa gure erreferentzia da, eta gurera ekartzean, itsasoaren kontzeptua gaineratu genion. Hortik dator Eratzun Berde Urdinarena.

**Kirola, osasuna, turismoa... aipatu dituzu. Zeharkako egitasmo honetan, nola integratu ditzakezue Udaleko beste departamentuak?**

Proiektuaren gidaritzan Agenda 21 departamentuak hartu du, garapen iraunkorra bultzatzea baita helburuetako bat. Baina ez gaude



## Si conseguimos que la ciudadanía sienta como algo suyo el EBU, será más sencillo afianzar los valores medioambientales



bakarrak; Ingurumen sailarekin, esaterako, lankidetzaz izugarria da. Eta hasiak gara beste sailekin elkarlanean. Herritarrak ahaztu gabe, noski. Euren ekarpenak jasotzeko, Jarraipen Batzorde moduko bat sortu nahi dugu, ezin dugu ahaztu herritarrei zuzendutako egitasmo baten aurrean gaudela.

### **Herriko elkarteez haratago, Eskolako Agenda 21 egitasmoaren baitan txertatzea helburu garrantzitsutzat joko da, ezta?**

Hala da. Kasu honetan urrats bat haratago eman nahiko genuke eta EBU Kluba sortu, ikasleak eta Guraso Elkartek inplikatzeko. Gainera, EBUren eta Eskolako Agenda 21eko helburuak bat egiten dute, batean zein bestean iraunkortasunaren aldeko apustua egiten delako. Egungo neska-mutilak etorkizuneko herritarrak izango dira eta behar den momentuan naturarekiko errespetuzko jarrera ezinbestekoa dela barneratzen badute, etorkizuneko jarrera hori izango dute eta ondorengo belaunaldiari naturarekiko maitasun hori transmitituko diete.

### **Nolako harrera izan du?**

Oso ona, Kirol eta Turismo departamentuetan izugarri gustatu zaie. Esan beharra dago Turismoarekin elkarlanean hainbat ekimen bideratu ditugula dagoeneko: 2017ko udan dunetako liburuxka argitaratu genuen eta Aranzadirekin biotopoen irteera gidatuak antolatu ziren. Harrera bikaina izan zuten eta asmoa da aurrean errepikatzea eta eskaintza

Arkamurka basoa bezalako beste eremuetara zabaltzea. Familia giroan gozatzeko plan ederra!!!

### **Zarauzko Eratzun Berde Urdina proiektu estrategiko bat dela aipatu izan duzu sarri. Zergatik da estrategikoa?**

Hirigintza ikuspuntu batetik estrategikoa da EBUk herria inguratzen duelako eta nolabait, herriko mugak zehazten dituelako. Gure departamentuan herriak muga hori ez zeharkatzea nahiko genuke, ingurumenari lotutako elementuak babestuz.

### **Herriko bizitza soziala uztartzeko dela diozunean, zarauztarrei bideratutako egitasmo baten aurrean gaudela iradoki nahi duzu?**

Bai, batez ere zarauztarrei begirako egitasmoa da. Herritarrak eta ingurumena izango dira ardatz nagusiak. Dituena ezaugarriengatik bisitariarentzako erakargarria izan liteke eta kontuan hartuko dugun ezaugarria da, baina printzipioz ez da turismora bideratutako egitasmoa.

### **Eta herritarrek ezagutzen dituzte EBU osatzen duten 11,7 kilometro horietan dauden interes bereziko guneak?**

Hainbat espazio oso ezagunak dira eta pentsatzen dut herritarrek ezagutzen dituztela. Baina ziur nago batek baina gehiagok sorpresa atseginak hartuko dituela. EBUrekin Monte Albertian dagoen espazio bat berreskuratzea lortu nahi dugu, orain arte itxita egon dena eta

herritarrentzat berria eta erakargarria izango dena. Muntxio, Zingira Basoa edota Tejeriako haltzadia ere ez dira oso zonalde ezagunak.

### **EBU osatzen duten hainbat gune ezagunak izan arren, egitasmoa bere osotasunean ez da oso ezaguna. Zer behar du egitasmoak indartzeko?**

Prozesu partehartzaile bat behar-beharrezkoa da. Denbora aprobetxatzeko asmoz, EBUren baitan egin daitezkeen egitasmoak lantzen hasi gara, batez ere gune ezberdinak berreskuratzeke. Ez dugu ahaztu behar ingurumena babesteko egitasmo baten aurrean gaudela, lehentasuna horrek duela. Eta hortik hasi gara. Hori esanda, aurreikusita dago partehartze prozesu bat egitea. Eta horrekin batera, seinaletika jarri da, panel informatiboak jarriko dira, euskarriak argitaratu ditugu, webgune bat martxan jarri, aldizkari hau, Eskolako Agenda 21arekin uztartuko dugu... Eta noski, zarauztarrei begira ekimen ezberdinak antolatuko ditugu EBU gunean.

### **Nola gustatuko litzaizuke egitasmoa ikustea hemendik hamar-hogeita urtera?**

Zarauzko hirigunea natura gunez inguratuta dago eta babestu behar ditugu; herriaren hazkundeak eta naturak bat egin behar dute. Garapen iraunkoraren irizpideak gailendu behar direla uste dut eta zentzu horretan, EBUk paper garrantzitsua jokatzen du herriaren hazkundeak eta garapen iraunkorra uztartuko dituelako. Horretarako sortzen da Eratzun Berde Urdina.



## Queremos crear el EBU Kluba con el objeto de implicar al alumnado

Eta galderari erantzunez, hemendik hogeitera nola egongo den ez dakit, baina niri gustatuko litzaidake orain dauden natura gune guztiak bertan egotea. Natura 2000 Sarean integratuta daudenak ez dute arriskurik, eta gainontzekoak orain baino osasuntsuago egotea nahiko nuke.

### Hirigintza ikuspegi batetik hitz egin didazu.

Bai, nire lehentasuna ingurumena delako eta ingurumena babesteko hirigintzaren ekimena beharrezkoa da.

### Pentsatzen dut herritarrek EBU bere sentitzea nahiko zenukeela?

Nahiko nuke zarauztarrok egitasmoa ulertzea, barneratzea eta bere egitea. Herritarrek garapen iraunkorra bere egiten badute, proiektua bere egingo dute. Hori horrela gertatuko balitz, bermerik onena litzateke ezarri ditugu ingurumen helburu horiek betetzeko. Herritarrek ikusten badute EBUK bizi kalitatea hobetzen diela eta ulertzen badute bere bizi kalitatea ingurumen natural horren babespean dagoela, EBU integratu, errespetatu eta mantentzea lortuko dute.

### Amaitzeko, EBUK interes gune ugari uzartzeko, baina zein da zure gogokoena?

Tejeriako haltzadia, zalantzarik gabe, baso horretan dagoelako, hain zuzen, egitasmo honen abiapuntua. Tejeriako haltzadia oso baso ederra da eta behar du berreskuratze prozesua martxan jartzea; horixe izango da gure hurrengo erronka EBUREN barruan.



## “EBU NACE PARA LA PROTECCIÓN DEL MEDIOAMBIENTE Y GARANTIZAR EL DESARROLLO SOSTENIBLE DEL MUNICIPIO”

Gloria Vázquez está convencida de que el Anillo Verde Azul (EBU) es un proyecto estratégico para Zarautz. Por varias razones: porque nace con el propósito de proteger al medioambiente, implica mantener espacios naturales y suelo virgen garantizando el desarrollo sostenible y contribuyendo a mitigar el cambio climático; y porque contribuye también a mejorar la salud y la calidad de vida de las personas. Además, constituye un elemento de ordenación urbanística proponiendo el mantenimiento de zonas periurbanas, limitando la artificialización del suelo.

Se trata de un proyecto lleno de vida, con una proyección enorme que se verá enriquecido con la aportación de la ciudadanía. Y sobre todo, con la implicación de la comunidad escolar, para la que se pretende crear el Club EBU.

Ciudadanía y medioambiente son los ejes que sustentan el proyecto. Dada sus características, estamos convencidos de que el EBU atraerá a las y los visitantes, pero el foco está puesto en la ciudadanía. Y su participación será vital.

Entre las tareas que estamos realizando dentro del EBU, cabe destacar las obras de restauración de los caminos de Muntxio y del parque de Vista Alegre llevadas a cabo con la colaboración del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación; la adquisición del bosque de Zingira con el objeto de restaurarlo y recuperar tanto el alcornoque como la charca; los trabajos de mejora en el camino de Tejería o la regeneración de la Aliseda. También contamos con otra colaboración de la Diputación, en este caso con el departamento de Juventud, para abrir el acceso del parque de Igerain, recuperando de esta forma un espacio para el municipio.

Si conseguimos que las y los zarauztarrok sientan el EBU como algo propio, que lo entiendan y lo interioricen habremos contribuido a impulsar el desarrollo sostenible de Zarautz encaminando a la ciudadanía hacia el desarrollo sostenible. En palabras de Gloria Vázquez “este es un objetivo, el de lograr un desarrollo sostenible, que debe ser el eje de todas las agendas políticas”





## EBU kluba sortu nahi dugu, parte hartu nahi dugu?

### Zer da EBU Kluba?

Eraztun Berde Urdinaren baitan Zarauzko Eskola Komunitateari bideratutako egitasmoa. Herriko eskoletan dabilzan neska-mutilak Eraztun Berde Urdinera gerturatzeko gonbidapena. Talde bateko partaide sentiaraziko zaituena.

Natura eta ingurumena maitatzen eta errespetatzen erakutsiko duena. EBUz gozatzeko aukera eskainiko duena. Bertako animalia eta landare espezien informazioa helaraziko duena.

Baina beti jostakin, beti umoretsu, beti naturarekin harremanetan, beti lagunez inguratuta. Hori ere baitu Klub bateko partaide izateak.


# denbora-pasak



## LETRA ZOPA

Ezagutzen dituzu EBUko interes guñeak?

Letra zopan dituzu ezkutututa: TEJERIA,  
HONDARTZA, VISTA ALEGRE, MUNTXIO,  
MALLA HARRI, INURRITZA, SANTA  
BARBARA, ZINGIRA ETA ASTI-IRITA



P	T	M	D	A	N	S	O	R	G	F	H	O	N	T	D	Z	R	A	X	E	E	F	B	A
A	A	I	R	E	J	E	T	A	C	B	T	O	S	J	H	A	H	V	Z	D	U	Ñ	F	W
U	G	E	J	L	X	L	E	Ñ	V	C	K	I	H	F	Z	S	B	A	P	S	Y	D	R	F
S	O	D	O	L	F	B	U	T	X	R	R	M	G	I	A	T	T	X	I	R	L	T	L	Z
D	S	G	K	T	E	V	M	A	L	L	A	H	A	R	R	I	A	Z	A	L	A	T	I	M
S	S	D	E	F	I	R	I	G	H	W	J	U	B	A	K	I	L	Y	T	A	A	N	E	G
Ñ	A	D	L	E	K	N	S	A	N	J	E	Q	E	U	H	R	L	G	F	Z	G	D	U	S
F	Q	M	F	K	I	N	T	B	R	I	R	A	R	V	A	I	Z	G	C	I	X	Z	Z	A
U	A	Z	R	W	S	M	X	S	E	D	D	U	A	O	U	T	E	C	R	R	B	A	E	G
U	G	E	J	L	U	G	E	H	A	T	E	K	Z	Y	B	A	I	A	G	E	T	V	F	R
G	N	M	U	N	T	X	I	O	A	N	U	U	E	D	Z	R	A	J	J	U	M	I	O	H
I	X	U	N	C	V	B	N	O	I	M	T	Ñ	T	P	C	K	I	H	F	A	L	O	K	I
H	K	I	Z	O	R	A	T	K	L	O	X	A	R	S	W	I	T	J	I	R	I	I	A	H
Ñ	E	M	L	K	D	O	H	A	R	R	I	M	B	J	K	H	G	F	D	E	O	N	E	S
K	A	A	L	Ñ	O	P	O	I	Z	U	R	X	U	A	Y	C	T	R	Ñ	G	K	U	E	B
A	T	E	E	L	D	V	I	S	T	A	A	L	E	G	R	E	B	M	U	N	U	R	K	W
Z	N	U	O	F	L	C	K	I	H	F	D	Z	N	M	O	B	B	N	A	A	A	R	K	Q
T	O	A	T	I	A	H	R	J	K	Z	I	N	B	A	K	L	A	I	L	A	C	I	K	E
R	I	A	A	L	E	A	A	T	O	Y	N	U	P	Y	O	A	J	R	O	A	O	T	I	W
A	R	M	Z	F	A	G	C	K	I	H	F	O	E	V	E	R	S	E	A	A	T	Z	E	M
D	I	U	A	A	T	E	N	A	L	C	A	N	Ñ	E	Z	P	E	B	A	A	Z	A	S	D
N	T	S	R	D	N	O	E	P	U	C	X	A	T	I	U	E	D	Z	R	A	O	D	E	Q
O	O	E	A	M	N	U	T	X	I	S	O	Z	E	R	I	E	A	U	L	Y	E	R	A	J
H	U	R	U	A	S	Y	E	N	E	I	P	U	R	O	O	M	E	I	D	N	A	V	I	E
O	A	T	T	J	A	Z	N	T	I	A	N	O	S	B	A	U	C	X	A	T	L	R	E	I



## LOGIKA JOLASA

Laskurain Zubeldia familia izango da logika jolasa honetako protagonista. Lau kidek osatzen dute familia: amak, aitak, alabak eta semeak. Semea eguerdian Zingira Basora joan da, mapa batekin. Familiako gainontzeko kideak Eratzun Berde Urdineko interes-guneak bisitatzera joan dira, baina denak ez dira une berean joan eta bakoitzak objektu bat eraman du.


Lagungarri gisa dituzuen datuak ego-ki erabiliz gero, familiak zer egin duen jakingo duzue: bakoitza nora eta noiz joan den eta zer eraman duen.

Bete ondoko taula, baina kontuz, hitzak behin bakarrik erabili ahal dira eta.

Motxila	Inurritza
Kantintplora	Goizean
Argazki-kamera	Arratsaldean
Hondartza	Gauean
Muntxio	

### Lagungarriak:

- Alabak argazki kamera hartu du.
- Aita ez da Muntxiora joan, ezta ama hondartzara ere.
- Ama ez da goizean atera.
- Hondartzara joan dena arratsaldean joan da eta Muntxiora joan dena goizean.
- Inurritzara joan denak motxila hartu du.



NOR	ZER ERAMAN DU	NORA JOAN DA	NOIZ JOAN DA
Semea	Mapa	Zingira Basoa	Eguerdian

## KOLORETAKO DOMINOA HARRIEKIN


EBUn jasotako harriekin eskulana egi-tea proposatzen dizuegu. Osatuko dugu bost koloreko dominoa?

### Materiala:

- Harriak (25).
- Margoak (aukeratu 5 kolore).
- Pintzelak.

### Nola egin:

1. Batutako harriak pilatu eta behar ditugunak aukeratu.
2. Harriak margotu: ertz bakoitza kolore ezberdin batekin.
3. Harriak lehortzen utzi.
4. Dominoan jolasteko prest!



# berde-urdin koloreztatua



Tokiko Agenda 21ek herritarrak sentsibilizatuz udalerrria garapen jasangarriaren bidean jartzea du helburu. Eskolako Agenda 21ek, berriz, hezkuntza-komunitatea du jomuga; egungo ikasleak sentsibilizatuz etorkizuna jasangariagoa izango den esperantzarekin.



Ikasturtero gai edo arazo bat aukeratzen da, beti ere ingurumena hizpide. Hausnarketa eta azterketa prozesu baten ondoren, diagnostikoa egin eta Udaleko plenoan hobetzeko proposamenak aurkezten dituzte alkate eta zinegotzien aurrean. Alkate eta zinegotziek, berriz, ikasleek eskatutako azalpenak ematen dituzte. Aurreko ikasturtean hondakinen gaia aukeratu zuten.



Nork atsegin du hondarretan plastikozko ontziak zapaltzea? Edota, uretan gaudenean egur zatiak eta bestelako hondakinak topatzea? Zergatik bilakatu gure itsaso preziatua plastikozko lurralde? Horrela jarraituz gero, itsasoan arrain baino plastiko gehiago izango da.

Galdera horien harira, Zarauzko ikastetxeetako ikasleok...

1

### Konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Ahalik eta hondakin gutxien sortzen ahaleginduko gara.
- Plastikoaren erabilera ekidingo dugu.
- Hamaiketakoak tuperrean edota oihalezko estalkian bilduko ditugu.
- Hondakin bakoitza bere edukiontzira botako dugu.



2


### Udalari egiten dizkiogun eskaerak:

- Edukiontzi gehiago jartzea.
- Edukiontzi irisgarriak lehenestea, haurren zein gurpildun aulkian dabiltzanen eskura.
- Natura guneak garbitzeko txango gehiago egitea –Aritz Aranburu surflariak antolatu ohi dituenen antzekoak–.

3

### Zarauzko Udalaren konpromisoak:

- Plastikoak murrizteko kanpainarekin jarraitzea.
- Baliabide naturalak garbitzeko txango gehiago egitea.
- Udalerriko haur-parkeetan zaborrak bereizteko ontziak maiztasun gehiagorekin hustea.
- Garbigunera eraman beharreko objektuak herrian bertan utzi ahal izateko Urola Kosta Udal Elkarteari baliabideak eskatzea.



# zator EBU ezagutzera antolatu dugun txangora

Eraztun Berde Urdinaren ageriko eta ezkutuko altxorak ezagutu nahi dituzu? **Azaroaren 11n** txangoa antolatu dugu; hitzordua **Aiten-Etxen** izango da, goizeko **9:30ean**.

Os invitamos a conocer el Anillo Verde Azul, el **11 de Noviembre** a las **9:30** delante de **Aiten-Etxe**.

Besteena beti izan ohi da hobea; urrunekoak beti du bertakoak falta duen distira. Bai, horrelakoak gara gizakiak. Bada, orrialde honetan Zarautzen bertan daukagun altxorretako bat ezagutzeko familia txangoa proposatu nahi dugu. Eraztun Berde Urdinaren barne dagoen Malla Harrira, edo nahiago baduzue, Mollarrira txangoa.



**DESPERTADOREA JARRI.** Norberak kalkula dezala zein ordutan esnatu behar duen 9:30etako hitzordura iristeko. Lau orduko ibilbidea egin ondoren, bazkalordurako etxean izango gara bueltan, 13:30ak aldera.



**MOTXILA PRESTATU.** Oinetako eta arropa ero-soak, eta motxilatxo batean ura eta hamaiketako-rako fruta piezaren bat, fruitu lehorrak, ogitarteko txikia, txokolatea... norberak jakingo du nola uxatu tripa-zorriak.



**HASIERA ETA BUKAERA.** Aiten-Etxen hasi eta bukatzen da ia hamabi kilometroko luzera duen ibilbidea, nahiz eta bakoitzak baduen nahieran moldatzeko aukera.



**ERRITMO EGOKIAN IGO.** EBUren baitan askotariko ibilbide zatiak daude: lauak, malkartsuak, ... Erritmo egokia hartzea da kontua, eta paisaiarekin gozatzeko geldiuneak egitea.



**PAISAIAREKIN GOZATU.** Animalia eta landare espezie ugari osatzen dute Eraztun Berde Urdinaren ekosistema. Zorte apur batekin, esate baterako, belatz handiaren (*falco peregrinus*) hegaldiekin egingo duzue topo Itsasoaren edertasuna ahaztu gabe!!!



**GURE HISTORIA EZAGUTU.** Eraztun Berde Urdinaren baitan hainbat interes-gune bisita daitezke: XVIII. mendeko Santa Barbara ermita, XIX. mendean eraikitako Malla Harria kargalekua edota XX. mende hasieran egindako Vista Alegreko dorrea. EBUk naturaz eta aisialdiaz gozatu, gure historia ezagutzeko parada ematen du.



**ARGAZKIAK ATERA ETA BIDALI.** Gogoratu [www.eraztunberdeurdina.eus](http://www.eraztunberdeurdina.eus) webgunean argazki galeria sortu dugula, bidali zureak!!!

## TEJERIAKO HALTZADIA: BUZTINZURI ERREKATXOAREN HAUSPOA

*Tejeriako haltzadia Eratzun Berde Urdinaren baitan aurkitzen den altxorretako bat da, Bustinzuriko errekatxoari eta Abendaño errekarari lotuta. EBUk altxor ugari biltzen ditu, baina Tejeriakoa berezia da, egitasmoaren iturburua bertan kokatzen baita.*


Herritik gertu egon arren Tejeriako haltzadia altxor ezkutua da, baina ez da oso ezaguna zarautzarron artean.

20-30 metroko altuera hartzen dute eta zirkulu formako bere hosto bereizgarriak bazkaleku dira haltzadian hazi eta hezten diren animalia espeziarentzat. Haltzak, gainera, zeregin garrantzitsua jokatzen du; xurgapen handiko espeziea izanik substantzia kontaminatzaileak eta metal astunak xurgatu egiten baititu desagerraraziz.

Zoritxarrez, ez dira gehiegi Euskal Herrian geratzen diren haltzadiak gizakiaren esku-hartzearen ondorioz desagertuz joan direlako. Zorionez, Tejeriakoa mantendu egin da eta egun, espezie askorentzat babeslekua eta kumeak hezteko leku aproposa da.

### CONVENIO PARA RECUPERAR EL ESPACIO

El Ayuntamiento de Zarautz ha firmado un convenio con los propietarios del terreno con el objetivo de recuperar y acondicionar la aliseda de Tejería, y por ende, convertir el bosque en un espacio atractivo de visita. Se trata de un bosque protegido, y el Departamento de Medio Ambiente va a intervenir para regenerarlo al tratarse de un ecosistema de gran valor y a su vez vulnerable.



# Zarauztarrak

EBUan



*EBU sortu berri den egitasmoa da, baina eraztuna osatzen duten gune gehienak Zarautz bezain aspaldikoak dira. Zenbat gertaera, pasadizo, anekdota jazo ote dira txoko horietan? Zenbat oroitzapen, amodio istorio edota aurkikuntza? Orrialde haue-tan lagin bat jaso dugu.*

**Istorio gehiago ezagutzeko gogoz gaude!**

Bidali zurea [zarautz@eraztunberdeurdina.eus](mailto:zarautz@eraztunberdeurdina.eus)  
helbidera



**ENEKO AZKUE LARRAÑAGA**

Ikaslea.

Gogoan dut haurtzaroan bazkalostean amarekin etortzen nintzela Inurritzako biotopora. Orduz gerroztik, lotura estua dut Zarautzen kanala izenaz ere ezagutzen den toki honekin. Amarekin egiten nituen ibilaldiak eta biotopoen izan ditudan bizipenak oinarri hartuta, txoriekin zaletu nintzen eta sarriagotan etortzen hasi nintzen.

Garai batean oso inguru basatia zen, gizakiaren esku-hartzerik gabeko baso baten modura. Landareak bere kaxa hazten ziren, ez zegoen irekita-ko biderik... apenas ibiltzen zen jendea. Ama eta biok, ordea, naturaz eta bakeaz gozatzera gerturatzaren ginen. Bost bat urte inguru izango nituen lehenengo bisita haietan.

2010ean zaharberritze lanak egin zituzten; jendea gerturatzeko egokitu zuten. Orain jende gehiago dator eta ez dago garai bateko isiltasunik; hala ere, herriaren eta biotopoaren arteko lubakia nabarmena da oraindik, zibilizazioaren eta naturaren arteko kontrastea erraz antzeman daiteke. Horregatik, lasai egon nahi dudanean Inurritzara etortzen jarraitzen dut, eta bide batez, garai bateko oroitzapenak ekartzen ditut gogora.



### **ANA BELEN JUARISTI URDANGARIN**

Gerente.

*Muntxio está ligado a mí y sobre todo, a mi niñez. Se trata de un lugar muy especial, del que guardo muchos recuerdos entre estos árboles y esta vegetación. Solía pasar los veranos con mis abuelos en la torre de la parroquia de Zarautz y salíamos a pasear por esta zona. Recuerdo que con mal tiempo llegábamos al parque que está de camino al puerto y volvíamos. Es un trayecto donde se mezclan olores muy especiales: por un lado, el olor a salitre y algas del mar, que se mezclaban con el olor a resina que desprenden los pinos, el característico olor de las higueras o los demás árboles.*

*Lo bueno de Muntxio es que está muy cerca del pueblo y de la playa, a sólo 5 minutos que te permiten hacer una escapada en cualquier momento. Es un lugar ideal para abstraerte, pensar, sentir o simplemente estar.*

*También recuerdo las fiestas que hacíamos cuando éramos jóvenes y veníamos a merendar con música. Ahora cuando vuelvo a este lugar rememoro todos esos recuerdos de la niñez y la juventud.*



### **FELIX ZUBIA OLASKUAGA**

Medikua.

*Saldibide auzoko biribilgunea oso leku berezia da niretzako. Vista Alegre parkeko eta Tejeriako haltzadiko bideak elkartzen dira puntu honetan, eta duela 20-25 urtera arte Zarauzko baserri eta herri giroaren elkargunea zen.*

*Garai batean Salbideko erreka zegoen hemen, orain haren arrasto txikia baino ez da geratzen. Bertan nire amonak eta beste hainbat emakumek arropa garbitzen zuten, kontu kontari ibiltzen ziren bitartean. Inguruan amonak baratza zeukan, eta sarritan etortzen nintzen baratzeko lanak egitera eta landare espezieak ezagutzera. Salbide baserria ere hemen inguruan zegoen. Orain, baratzen orde ez etxeak daude.*

*Leku honi begiratzeko diodanean haurtzaroko oroitzapenak etortzen zaizkit burura: nekazal giro hura, errekaraino ur bila etortzen ginenekoa... Oroitzapenak baino ez dira geratzen, paisaia hura desagertua baitago. Orain zarautzarrok herriko ingurune naturala hurbilago daukagu, gozatzea eta zaintzea tokatzen zaigu.*



### **MARIA JESUS TOMAS**

Enfermera.

*Zarautz siempre ha sido terriblemente importante para mí, aquí tengo mis raíces y mi vida. Y la playa especialmente. Es un símbolo de nuestro municipio; ahora, más si cabe con las y los surfistas, pero para muchas personas de mi generación ir a la playa y bañarnos con nuestros trajes de baño de gomitas era el summum.*

*Recuerdo que solíamos bajar a la playa en cuadrilla, con manzanas que cogíamos de Vista Alegre. Nos pasábamos horas y horas hablando, sobre todo, de los guateques. En aquella época la playa era más peligrosa que ahora y solía haber muchos rescates de gente que se ahogaba. A mí no me gustaba acercarme, pero un día me convencieron y sin darme cuenta me encontré con el farmacéutico y con otro amigo sacando la lengua a un señor para que pudiera respirar. Esa anécdota fue la que me llevó a estudiar enfermería, profesión a la que he dedicado 40 años con toda mi alma.*

*Necesito estar en contacto con la playa y el mar, representan algo muy importante tanto en mi vida como en la de mi familia.*

# *animatu ta bidali zure argazkiak*

Anímate y envía tus fotografías

[www.eraztunberdeurdina.eus](http://www.eraztunberdeurdina.eus)



ERAZTUN BERDE URDINA  
HERRIINGURUKO BERDEGUNEEN ZAINTZA



ZARAUZKO UDALA  
agenda21



udalsarea21  
jasangarritasunerako udalerrien euskal sareo  
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingurumeneko eta Ozeo  
Habitatuko Departamentua



ORAIN  
INGURUMENA